



REGLEMENT INTERIEUR DES ACCUEILS EXTRASCOLAIRES ESKOLATIK KANPOKO HARRERA-GUNEEN BARNE ARAUDIA

VILLE D'HENDAYE
HENDAIKO HERRIKO ETXEA

La Commune a fait le choix, depuis de nombreuses années, de proposer aux familles hendayaises les services des accueils de loisirs extrascolaires :

Badu urte anitz Herriko Etxeak Hendaiako familiei eskolatik kanpoko aisialdi guneen zerbitzuak eskaintzen dizkiela:

3/6 ans - 3/6 urte	6/15 ans - 6/15 urte	14/17 ans - 14/17 urte
<p><u>Toute l'année - Urte osoan</u> :</p> <p>Maison de la Petite Enfance Hautzaroaren Etxea 4, rue d'Irandatz 64700 Hendaye Tel. 05.59.48.02.05</p> <p><u>En plus pour les grandes vacances</u> <u>Gainera, udako oporretan</u> «Lissardy Txiki» Ecole maternelle de Lissardy Lizardiko ama-eskola Boulevard de l'Empereur 64700 Hendaye Tel : 05 59 20 06 32 (que l'été - udan bakarrik)</p>	<p><u>Les mercredis et petites vacances</u> :</p> <p><u>Asteazkenetan eta opor txikietan</u> Ecole élémentaire de la Ville Hiri-barneko 1. mailako eskola 2, Bd Gén de Gaulle Entrée « Garçons » 64700 Hendaye Tel.05.59.20.73.58</p> <p><u>Aux grandes vacances (6/14 ans)</u> <u>Udako oporretan (6/14 urte)</u> Ecole élémentaire de Lissardy Lizardiko 1. mailako eskola Rue Michel Fourquet 64700 Hendaye Tel. 05.59.20.19.07</p>	<p><u>Aux grandes vacances</u> <u>Udako oporretan</u></p> <p>L'accueil Ados Plage Nerabeentzako Hondartza-Bilgunea Plage d'Hendaye - Hendaiako Hondartza 64700 Hendaye Tel : 06.31.01.90.30.</p>

Mairie Tél. 05.59.48.23.23

Herriko Etxea - Tel: 05.59.48.23.23

Plusieurs services municipaux sont concernés par ces accueils:

Udal zerbitzu batzuek aisialdi gune horien kudeaketan parte hartzen dute:

- le service Financier (Mairie, 2^{ème} étage): pour le paiement.
- le service Animation Enfance Jeunesse (Mairie, sous sol et structures): pour budgets, administration, gestion du personnel animateurs, pédagogie... dans tous les accueils.

- Finantza zerbitzua (Herriko Etxeko 2. solairuan): ordainketarako.
- Haur eta Gazte Animazio zerbitzua (Herriko Etxeko solairupean eta aisialdi guneetan): gune guztietarako aurrekontuak, administrazioa, langileen kudeaketa, pedagogia...

LES PROJETS EDUCATIF ET PEDAGOGIQUE

HEZKUNTZA eta PEDAGOGIA PROIEKTUAK

Le projet éducatif :

Hezkuntza-proiektua :

Ayant le souci du bon accueil des enfants et pour la cohérence du service, les élus hendayais ont mis en place un projet éducatif.
Ce projet donne une ligne de conduite générale à tous les accueils municipaux hendayais.

Hendaiako hautetsiek hezkuntza-proiektu bat sortu zuten, haurrei harrera ona eskaintzeko eta zerbitzuaren kalitate ona eta koherentzia bermatzeko arduraz.

La finalité du projet éducatif :

« Le bien être des personnes dans leur cité »

Proiektu horrek Hendaiako Herriko Etxeko harrera gune guztientzako jokabide-arau orokorra finkatzen du.

Hezkuntza-proiektuaren helburua:

“Nor bere horian ongi senti dadin”

Les valeurs :

Baloreak:

- * la citoyenneté,
- * l'identité culturelle,
- * les échanges entre générations et structures,
- * La continuité dans l'éducation,
- * L'épanouissement personnel
- * La laïcité
- * La protection de l'environnement et le développement durable

- * Herritartasuna,
- * Kultur nortasuna
- * Belaunaldi eta egituren arteko trukaketak,
- * Hezkuntza jarraikia,
- * Norbanakoen gogo-betetasuna,
- * Laikotasuna
- * Ingurumenaren babespena eta garapen iraunkorra

Les projets pédagogiques :

Ces projets sont la mise en œuvre sur le terrain du projet éducatif. Ils sont issus de la réflexion et de la pratique de chaque équipe.

Vous pouvez consulter le projet pédagogique dans la structure d'accueil de l'enfant et sur www.hendaye.com

PERSONNEL DES SERVICES

Les accueils de loisirs sont des lieux éducatifs, où des équipes compétentes travaillent pour le bien être de l'enfant en répondant aux objectifs éducatifs de la municipalité.

Leurs moyens sont de plusieurs ordres :

- * La compétence professionnelle : l'accompagnement, l'échange, le suivi, l'observation, les activités et ateliers ludiques...
- * Des moyens financiers : chaque accueil dispose d'un budget afin de pouvoir acheter ce qui est nécessaire aux ateliers ou à l'aménagement des accueils.
- * Les réunions de travail : les équipes se réunissent afin d'évaluer les actions menées et de mettre en place les séances d'accueil suivantes.
- * La formation : chaque année il est proposé par le service Animation Enfance Jeunesse divers sujets de formation en fonction des demandes du personnel et dans un souci de formation continue.

Les accueils de loisirs sont déclarés en tant que tels auprès du préfet du département, ceci implique que ces structures aient à respecter la réglementation en vigueur : taux d'encadrement, qualification du personnel, existence d'un projet éducatif et d'un projet pédagogique...

Les équipes d'encadrement sont composées :

- o D'un adulte pour un nombre de 8 enfants pour les enfants de - de 6 ans. Ces postes sont occupés par les personnels BAFA, AFPS...
- o D'un adulte pour un nombre de 12 enfants pour les enfants de 6 ans et plus. Ces postes sont occupés par des animateurs, essentiellement titulaires du BAFA, AFPS...
- o Chaque structure est gérée par un (e) directeur (trice), titulaire ou stagiaire BAFD.

LES HORAIRES

Accueil de loisirs de la Maison de la Petite Enfance : ouverture de 9h00 à 17h00. Possibilité d'accueil en journée (de 9h00 à 17h00) ou en demi journée (de 9h00 à 12h00 et/ou de 14h00 à 17h00).

Un service d'accueil sera proposé aux enfants dont les parents travaillent :
- de 8h00 à 9h00
- de 17h00 à 18h00.

Proiektu pedagogikoak:

Hezkuntza-proiektuaren gauzatzea dira. Lan-talde bakoitzaren gogoeta eta praktikatik ateratzen dira.

Proiektu pedagogikoa kontsultatzeko: haurrentzako harrera-egituran eta www.hendaye.com webgunean

ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Aisialdi zentroak heziketa-tokiak dira, non prestakuntza maila oneko langile taldeak haurren ongi-izatearen alde ari baitira, Herriko Etxeak jarritako hezkuntza helburuak betez.

Horretarako hainbat baliabide dute:

- * Gaitasun profesionala: laguntza, trukaketa, jarraipena, behatzea, aktibitate eta lantegi ludikoak...
- * Baliabide ekonomikoak: talde bakoitzak aurrekontu bat dauka, lantegietan erabiltzen den materiala erosteko zein harrera gunek antolatzeko.
- * Lan-bilkurak: lan taldeak biltzen dira eginiko ekintzak baloratzeko eta haien ondorengo harrera saio berriak prestatzeko.
- * Formakuntza: urtero, Haur eta Gazte Animazio Zerbitzuak zenbait formakuntza proposatzen ditu, langileen eskaeren arabera eta formakuntza jarraikia ziurtatzeko asmoz.

Aisialdi zentroak, izendapen horrekin aurkezten zaizkio departamenduko prefetari, eta halatan, indarrean den araudia errespetatu behar dute: animatzaile kopurua, langileen kualifikazioa, hezkuntza-proiektu bat eta proiektu pedagogiko bat izatea...

Lan-taldeen osaketa:

- o Heldu bat 6 urtez petiko 8 haurrentzat. Lanpostu horiek betetzen dituzte BAFA, AFPS... tituluak dituzten langileak.
- o Heldu bat 6 urtetik gorako 12 haurrentzat. Lanpostu horiek animatzaileek betetzen dituzte, gehienetan BAFA, AFPS... bezalako tituluren bat dutenek.
- o Egitura bakoitzean zuzendari bat dago (BAFD tituluduna edo tituludunagaia).

ORDUTEGIA

Haurtzaroaren Etxeko Aisialdi Zentroa: 9:00etatik 17:00etara irekia. Haurra egun osoan uzteko aukera da (9:00etatik 17:00etara) edo egun erdia (9:00etatik 12:00etara edota 14:00etatik 17:00etara).

Horrez gain, lanean ari diren gurasoen haurrei harrera zerbitzua proposatzen zaie :

- 8:00etatik 9:00etara
- 17:00etatik 18:00etara.

Accueil de loisirs de Lissardy ou de la Ville : ouverture de 9h00 à 17h00. Possibilité d'accueil en journée (de 9h00 à 17h00) ou en demi journée (de 9h00 à 12h00 et/ou de 14h00 à 17h00).

Un service d'accueil sera proposé aux enfants dont les parents travaillent :
- de 8h00 à 9h00
- de 17h00 à 18h00.

Accueil Ados Plage : ouverture de 14h30 à 18h30. Voir règlement intérieur de l'accueil sur www.hendaye.com

PERMANENCES, INSCRIPTIONS ET RESERVATIONS

L'enfant doit être inscrit à l'école et âgé d'au moins 3 ans.

L'inscription et les réservations s'effectuent chaque année, directement dans les structures lors de leurs ouvertures (mercredis et vacances scolaires) ou en ayant pris rendez-vous avec le(a) directeur (trice) de la structure concernée.

Pour les enfants de 3 à 14 ans, il est possible de réserver à la demi-journée, à la journée, au forfait* semaine et au forfait semaine demi-journées.

Les enfants dont la place n'aura pas été réservée ne seront acceptés que dans la mesure des places disponibles.

Permanences pour les inscriptions et/ou réservations :

Accueil de loisirs de la Maison de la Petite Enfance :

- Jours d'ouverture de l'accueil (mercredis et vacances scolaires) dans la structure même.
- Autres jours à la Maison de la Petite Enfance :
 - Le mardi : 13h30/17h00
 - Le jeudi : 9h00/12h00.

Accueil de loisirs de la ville et de Lissardy :

- Jours d'ouverture de l'accueil (mercredis et vacances scolaires) dans la structure même.
- Autres Jours en mairie au service animation enfance jeunesse :
 - Le mardi : 9h30/11h00 - 13h45 à 17h 30
 - Le jeudi : 9h30/11h00 - 13h45 à 16h30.

Accueil Ados Plage :

- Contacter les responsables du mardi au samedi au 06.31.01.90.38.
- Sur la structure de juillet à août.

D'autres heures/dates sur rendez-vous.

Fin des inscriptions et réservations :

- Pour les mercredis :
 - Le mercredi précédent pour les 6 - 13 ans
 - 15 jours avant la date de présence souhaitée pour les 3-6 ans.

Lizardiko eta Hiri-barneko Aisialdi Zentroa: 9:00etatik 17:00etara irekia. Haurra egun osoan uzteko aukera da (9:00etatik 17:00etara) edo egun erdian (9:00etatik 12:00etara edota 14:00etatik 17:00etara). Horrez gain, lanean ari diren gurasoen haurrei harrera zerbitzua proposatzen zaie :

- 8:00etatik 9:00etara
- 17:00etatik 18:00etara.

Nerabeentzako Hondartza-bilgunea: 14:30etik 18:30era irekia. Barne-araudia ikus dezakezue www.hendaye.com webgunean.

PERMANENTZIAK, IZEN-EMATEAK ETA ERRESERBAK

Haurrak eskolaratua izan behar du eta gutxienez 3 urte ukan behar ditu.

Izen ematea eta erreserbak, urtero zentroetan bertan egiten dira irekiak diren bitartean (asteazkenetan eta eskoletako oporretan) edo zentroko zuzendariarekin aitzinetik hitzordua hartuz.

3 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, erreserba daiteke egun erdika, egunka, edo asteka (egun osoko edo egun erdiko formulak).

Tokia erreserbatu ez duten haurrak leku librean arabera onartuko dira.

Izen-emateko edota erreserbatzeko permanentziak:

Haurtzaroaren Etxeko Aisialdi Zentroa:

- Zentroan bertan, irekia den egunetan (asteazkenetan eta eskoletako oporretan).
- Beste egunetan Haurtzaroaren Etxean:
 - Asteartetan: 13:30 / 17:00
 - Ostegunetan: 9:00 / 12:00

Lizardiko eta Hiri-barneko Aisialdi Zentroak:

- Zentroan bertan, irekia den egunetan (asteazkenetan eta eskoletako oporretan).
- Beste egunetan, Herriko Etxean, Haur eta Gazte Informazio Zerbitzuan:
 - Asteartetan: 9:30 / 11:00 - 13:45 / 17:30
 - Ostegunetan : 9:30 / 11:00 - 13:45 / 16:30.

Nerabeentzako Hondartza-bilgunea:

- Arduradunekin lotu, asteartetik larunbatera 06.31.01.90.38 telefonora deituz.
- Uztailean eta abuztuan, zentroan bertan.

Beste ordu edota egunetarako, hitzordua hartu.

Izen emateko eta erreserbatzeko epeak :

- Asteazkenetarako:
 - Aitzineko asteazkenean 6-13 urte bitartekoentzat
 - Haurra eraman baino 15 egun lehenago 3-6 urte bitartekoentzat.

- Pour les petites vacances : (hiver, printemps et automne))
15 jours avant la période de vacances
- Pour les grandes vacances : (été)
15 jours avant la période de vacances

Pour l'inscription veuillez vous munir des documents suivants (si pas fournis déjà au service financier):

- Dernier avis d'imposition ou l'aide aux loisirs de la C.A.F.
- Attestation d'assurance
- Copie des pages du carnet de santé relatives aux vaccinations, copie du carnet de vaccinations, ou attestation d'un médecin
- Un R.I.B.
- Dates de présence de l'enfant

ANNULATION

L'annulation d'une réservation sera possible dès lors qu'elle aura été signalée par écrit :

Pour le mercredi : avec 15 jours d'avance uniquement pour la Maison de la Petite Enfance, d'un mercredi à l'autre pour l'accueil de loisirs de la ville.

Pour les vacances scolaires : avec 15 jours d'avance pour les 2 accueils.

Attention : face au constat de certaines pratiques et pour éviter certains abus, l'annulation de 50 % de la réservation fera perdre la place dans la structure, en cas d'existence de liste d'attente.

Ce quota sera calculé en fonction des périodes réserves :

- Pour les mercredis : le mois civil sera la référence.
- Pour les petites vacances : la période des vacances en question sera la référence.
- Pour l'été : le mois civil de la réservation sera la référence.

En cas d'absence pour maladie, sur présentation du certificat médical, la réservation sera annulée automatiquement sans perte de place.

MATERIEL A FOURNIR

Pour la commodité et la sécurité de votre enfant, nous vous demandons d'adapter sa tenue à l'activité qui lui sera proposée.

En été, nous vous demandons de lui fournir un sac contenant une serviette de plage, un maillot de bain, une petite bouteille d'eau, une casquette et un tube de crème solaire.

- Opor laburretarako: (neguan, udaberrian eta udazkenean)
Oporrak baino 15 egun lehenago
- Udako oporretarako:
Oporrak baino 15 egun lehenago

Izena emateko, honako dokumentu hauek eman behar dira (ez badizkiozu dagoeneko Finantza zerbitzuari eman):

- Azken zerga-agiria edo Familia-laguntza Kutxaren (C.A.F.) aisialdietarako laguntza
- Aseguruaren ziurtagiria
- Haurraren osasun liburuxkaren txerto buruzko orrialdeen kopia, txerto-liburuxkaren kopia edo medikuaren ziurtagiria
- Bankuko Kontu-zenbakiaren Agiria (R.I.B.)
- Haurra hor izanen den egunak

EZEZTATZEA

Erreserba ezeztatzen ahal da, idatziz, honako baldintza hauetan:

Asteazkenerako: 15 egun lehenago Haurtzaroaren Etxearentzat bakarrik, eta asteazken batetik bestera, Hiri-barneko aisialdi zentroarentzat.

Eskoletako oporretarako: 15 egun lehenago, bi aisialdi zentroarentzat.

Kasu: ohitura batzuk ikusirik, eta zuzengabekeriak saihesteko, itxarote-zerranda baldin bada, haurrak bere tokia galduko du erreserbaren %50a ezeztatuz gero.

Kopuru hori erreserbatutako garaien arabera kalkulatu da:

- Asteazkenetarako: erreferentzia hilabete zibila izanen da.
- Opor laburretarako: erreferentzia opor garaia izanen da.
- Udarako: erreserbaren hilabete zibila izanen da erreferentzia .

Haurra ez bada gaixorik delako etortzen, medikuaren ziurtagiria aurkeztuz gero, erreserba automatikoki ezeztatuko zaio eta tokia gordeko.

ERAMAN BEHAR DEN MATERIALA

Zure haurraren erosotasun eta segurtasunarengatik, ekar ditzala, otoi, proposatuko zaion jarduerarako egoki diren jantziak.

Udan, hondartzako oihala, bainu-jantzia, ur-botila txikia, kasketa eta eguzki-krema eraman ditzala zaku batean.

SANTE

Les enfants manifestant une température au dessus de 37,5°, une éruption... ne peuvent pas fréquenter ce service. Les parents s'engagent à ne pas amener leur enfant en cas d'affection contagieuse de l'enfant ou d'un membre de la famille.

En cas de maladie ou incident grave survenu lors de l'accueil, les directeurs préviendront le SAMU (tél : 15) puis les parents, la municipalité.

En cas de maladie ou incident sans gravité, les directeurs préviendront les parents.

La maladie chronique ou le traitement médicamenteux d'un enfant devra être signalé(e) au directeur de l'accueil. Ceci permettra d'élaborer avec les parents et l'équipe de l'accueil un projet d'accueil individualisé (PAI) pour l'enfant. Au cours des rencontres avec les parents, d'après les besoins de l'enfant, les moyens dont on dispose et ceux que l'on peut mettre en place, nous pourrions, si cela est possible, adapter l'accueil à l'enfant tout en garantissant sa sécurité.

Il est formellement interdit, pour la sécurité de tous les enfants, de mettre des médicaments dans les sacs.

SECURITE

Arrivée des enfants :

Pour la sécurité des enfants, nous demandons aux parents d'accompagner les enfants jusqu'aux accueils et de les confier aux animateurs en personne.

Départ des enfants :

Les enfants ne seront rendus qu'à leurs parents et aux personnes désignées dans la fiche d'inscription et portant une pièce d'identité. Aucun enfant ne sera confié à un mineur.

Nous vous demandons également de nous signaler par écrit toute personne ne pouvant plus récupérer votre enfant.

Les retards, lorsque vous venez chercher votre enfant, doivent rester exceptionnels. Si ce n'était pas le cas et suite au rappel des horaires, nous procéderions à la radiation de votre enfant. Ce dernier ne pourrait donc plus fréquenter cet accueil par cause de manquement de votre part au règlement intérieur.

ASSURANCES

L'assurance demandée est la responsabilité civile.

Par ailleurs, comme pour toute activité de loisirs et après conseil de la Direction Départementale de la Cohésion Sociale pôle Jeunesse, Sports et Vie Associative, nous conseillons fortement les familles de souscrire une assurance accidents corporels.

La commune couvre les risques liés à l'organisation du service.

Attention ! En aucun cas la responsabilité de la structure sera engagée lors de la perte, l'égarement ou le vol des objets divers appartenant aux enfants.

OSASUNA

37,5 gradutik gorako sukarra, erupzio bat... sufritzen duten haurrak ezin dira zentrorra etorri. Gurasoak haurra ez ekartzera lotzen dira, haurrak berak edo senide batek eritasun kutsakor bat badu.

Zentroan agertu eritasun edo gertakari larrien kasuetan, zuzendariak SAMU (tel: 15) deituko dute, eta ondotik gurasoak eta Herriko Etxea.

Larritasunik gabeko eritasun edo istripu kasuetan, zuzendariak gurasoak abisatuko dituzte.

Haurrak gaixotasun kronikoa edo botika-tratamendua badu, zuzendariari aipatu beharko zaio. Horri esker, gurasoek eta zentroaren langileek banan-banako Harrera Proiektu bat egingen dute haurarentzat. Gurasoekin behar bestetan bildu eta, haurraren beharrak kontutan hartuz, dauden, edota martxan ezartzen ahal diren baliabideen arabera, haurraren harrera egokitzen ahalko dugu beraren seguritatea bermatzearekin batera.

Haur guztien segurtasuna dela eta, debekatua da botikak zakuetan ematea.

SEGURTASUNA

Haurren iristea:

Haurren segurtasuna dela eta, gurasoei eskatzen diegu haurrak zentroetaraino laguntzea eta animatzaileei beraiei uztea.

Haurren joatea:

Haurrak joaten utziko dira bakarrik gurasoekin eta izen-emateko fitxan izendatu pertsonekin (nortasun agiria aurkeztu ondoren). Haurrak ez dira adingabeko batekin joaten utziko.

Norbait ezin bada gehiago zure haurraren bila joan, idatziz jakinarazteko eskatzen dizugu.

Haurraren bila etortzen zarelarik, berandu iristea ez ohikoa izan behar da. Hala ez balitz, ordutegia gogorarazi ondoren, zure haurraren izena kendu beharko genuke. Beraz, ez liteke gehiago zentrorra etortzen ahalko, zuk barne-araudia ez errespetatzeagatik.

ASEGURUA

Erantzukizun zibilaren aseguru dugu eskatzen.

Bestalde, edozein aisialdi-jardueretarako bezala, eta Gizarte Kohesiorako Zuzendaritzaren "Gazteria, Kirola eta Elkarleen Bizia" Arloa kontsultatu ondoren, familiei gorputz-istripuetarako aseguru baten kontratatzea aholkatzen diegu.

Herriko Etxeak zerbitzuaren antolakuntzari lotu arriskuak estaltzen ditu.

KASU ! Egiturak ez du inolako erantzukizunik, haurrei zerbait galdu edo lapurtuz gero.

TARIFS

Les tarifs sont calculés lors de l'inscription d'après les revenus de la famille, à la journée ou au forfait. Ils n'ont pas été modifiés depuis le 1^{er} janvier 2010.

A titre d'information : en 2010 une journée d'accueil a eu un coût de revient de 38,63 €, le tarif appliqué aux familles variait, d'après leur quotient familial, entre 6,50 € et 14,46 € par jour.

Ces tarifs s'entendent collation du matin, repas de midi et goûter de l'après-midi compris.

Lorsque l'enfant ne vient que la demi-journée et ne déjeune pas au centre, il bénéficie du demi-tarif.

Si votre enfant part en camp, une participation financière pourra vous être demandée en fonction du coût du camp.

Le forfait s'applique lorsque l'enfant est présent les 5 jours de la semaine.

LE PAIEMENT DE CES SERVICES

Chaque année, les prix des services sont fixés par une délibération du Conseil municipal.

Vous recevrez chez vous, à terme échu, la facture correspondant aux présences de l'enfant.

Les paiements s'effectuent auprès du service Financier : au 2^{ème} étage de la Mairie, ou par prélèvement automatique.

Toute question sur les jours de présence des enfants se traite avec le service Animation Enfance Jeunesse.

Les factures des temps d'accueil de loisirs sont déductibles de vos impôts pour les enfants de moins de 7 ans. Aussi, elles peuvent être prises partiellement en charge par certains comités d'entreprise. Pour ce faire, les attestations de présence nécessaires sont délivrées, sur demande, par le (a) directeur (trice) de la structure.

Toute personne qui n'est pas à jour dans son paiement pourra se voir interdire l'utilisation de ces services après avertissement.

LE RESPECT DES REGLES

Il est demandé aux enfants de respecter les règles de vie communes au groupe. Des comportements agressifs, irrespectueux...pourraient entraîner des sanctions qui vont de la punition à l'expulsion de l'enfant de l'accueil.

Ce n'est que suite à trois avertissements, après entrevue avec les parents et suite à une décision des élus, que l'enfant pourra être expulsé temporairement de l'accueil.

En cas de problème grave avec un enfant, l'équipe du service en avertira le service Animation Enfance Jeunesse puis les parents de l'enfant.

Ce règlement intérieur sera revu et modifié en cas de besoin.

Pour l'intérêt de tous, nous remercions par avance les parents du respect strict du règlement intérieur.

L'inscription vaut acceptation du présent règlement.

Fait à Hendaye, le 03 janvier 2012 - Le Maire,

PREZIOAK

Prezioak izen-emateko momentuan kalkulatzen dira, familiaren diru-sartzeen arabera, egunka edo balio hitzartuak aplikatuz. Prezioak ez dira aldatu 2010eko urtarrilaren 1etik.

Informazio gisa: 2010ean, harrera-egunaren kostea 38,63 eurokoa bazen ere, familiei kobratu eguneko prezioa 6,50 eta 14,46 euro bitartekoa zen, familia-kozientearen arabera.

Prezio horietan sartzen dira goizeko eta arratsaldeko krakadak eta eguerdiko bazkaria.

Haurra egun erdian baizik egoten ez bada, eta zentroan bazkaltzen ez badu, prezio erdia ordaintzen du.

Zure haurra kanpatzera joaten bada, diru kopuru gehigarria eskatzen ahalko zaizu, kanpaldiaren kostuaren arabera.

Balio hitzartua aplikatzen da haurra asteko 5 egunetan etortzen bada.

ZERBITZUEN ORDAINKETA

Urte guztiz, Herriko Kontseiluaren delibero batek ditu zerbitzuen prezioak finkatzen.

Epea beterik, jasoko duzu etxean faktura, haurraren presentzia-egunen arabera.

Ordainketak Herriko Etxeko 2. solairuan kokatu Finantza zerbitzuan edo banku-kontuaren bidez egiten dira.

Haurren presentzia-egunei buruzko galdera guztiak, aldiz, Haur eta Gazte Animazio Zerbitzuan egin behar dira.

7 urtez beherako haurrentzat, aisialdi zentroen fakturak zure zergetatik desgrabatzen ahal dira. Enpresa-komite batzuek ere dirulaguntzak ematen ahal dituzte. Horretarako, behar diren presentzia-ziurtagiriak egituraren zuzendariari eskatu behar zaizkio.

Ordaindu beharrekoa ordaindu gabe dutenei zerbitzua erabiltzea debekatzen ahalko zaie, abisatu ondoren.

ARAUEN ERRESPECTATZEA

Hurrei elkarbizitarako arauak errespetatzeko eskatzen zaie. Erasokeriak, errespetu eza... zigortuak izan daitezke, haurrari zigortxoren bat ezartzetik eta haurraren behin betiko kanporatzeraino.

Haurra zentrotik aldi baterako kanporatua izaten ahalko da bakarrik hiru amonestazio eman, gurasoekin elkarrizketa bat eduki eta hautetsiek erabaki ondotik.

Haur batekin arazo larri bat edukiz geroz, zentroaren lan-taldeak Haur eta Gazte Animazio Zerbitzua eta ondotik haurraren gurasoak abisatuko ditu.

Horren beharrik bada, barne-araudi hau berrikusi eta aldatzen ahalko da.

Denon interesaren alde, gurasoei barne-araudia zorrozki errespetatu dezaten erregutzen diegu.

Haurraren izen-emateak dakar berekin araudi hau onartzea.

Hendaian, 2012ko urtarrilaren 3an - Auzapeza,

Jean-Baptiste SALLABERRY